

## URRETXUKO JAIK 2019 .- SANTA ANASTASIA



### ARGAZKI LEHIAKETAK

#### “HERRI ARTEKO FOLKLORE JAIALDIA” II.ARGAZKI LEHIAKETA

**PARTAIDEAK:** nahi duten pertsona guztiek, bai zaletu bai profesionalek, aurkezten dituzten argazkien egileak direnek parte hartu ahal izango dute.

**GAIA:** irailaren 14ean egingo den HERRI ARTEKO XXXI. FOLKLORE JAIALDIArekin zerikusia duen edozein gai (azoka, kalejira, jaialdia...)

**AURKEZPENA:** persona bakoitzak 5 argazki bidali beharko ditu, irailaren 28ko 24:00ak baino lehen

Informazioa eta oinarri guztiak eskatzeko: [info@lurradantza taldea.com](mailto:info@lurradantza taldea.com)

---

#### SANTA ANASTASIA JAIETAKO V. ARGAZKI LEHIAKETA DIGITALA

**PARTAIDEAK:** Nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.  
Kategoriak: haurrak, 16 urte arte, eta helduak.

**GAIA:** 2019ko Santa Anastasia Jaiak (jai egitarauan sartutako guztia).

**AURKEZPENA:** pertsona bakoitzak gehienez 3 argazki, irailaren 25eko 14:00ak baino lehen

\* Oinarriak: [www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus) / 943 038088



Urdaxko udala

# ARGAZKI ERAKUSKETA

**CARLOS MEDIAVILLA**  
**Iparraldeko argiak**



## IRAILAK 14, larunbata



### HERRI ARTEKO XXXI. FOLKLORE JAIALDIA

**10:00.- II. FOLKLORE AZOKA,** Gernikako Arbola plazan. Folklore eta musika tradizionalaren lotutako artisauek eta erakusleak izango dira. Euskal Jaiarako materiala lortzeko aukera ezin hobea: abarkak, apretak, kaikuak, artilezko galtzak, txistuak, dultzainak, panderoak...

**12:00.- HERRI ARTEKO FOLKLORE JAIALDIKO TALDEEI HARRERA,** udaletxean.

**13:00.- “MUNDUKO DANTZAK” IKASI,** Gernikako Arbola plazan. Jaialdian parte hartuko duten taldeek nahi duten pertsona guztiei erakutsiko diete beraien herrialdeetako dantza tradizionalen oinarritzko pausuak.

**14:00.- II. FOLKLORE AZOKAREN AMAIERA.**

**18:00.- HERRI ARTEKO XXXI. FOLKLORE JAIALDIA,** Aldiri kiroldegian.

- LURRA DANTZA TALDEA – Urretxu (Gipuzkoa)
- GARAZTARRAK DANTZA TALDEA – Donibane Garazi - Behe Nafarroa
- GRUPO FOLCLÓRICO “AIRES CASTELLANOS” – Arroyo de la Encomienda - Valladolid
- KUD OSTRIC FOLK DANCE GROUP (Kroacia)
- YUNIST PODILLYA FOLK DANCES GROUP (Ukrania)

Lurra dantza taldeko dantzari txikiek emango diete hasiera jaialdiari. Bitartean, gainontzeko taldeak kaletik etorriko dira kiroldegiraino, kalejiran.

Argazki lehiaketa: jaialdiaren argazki lehiaketa antolatu da. Oinarriak Lurra dantza taldearen facebookean. Informazio gehiago: [info@lurradantzataldea.com](mailto:info@lurradantzataldea.com)

### KARROZEROEN KALEJIRA

**20:30.- Karrozeroak kaleetan zehar “Josetxo eta Alayak” elektrotxarangarekin giro alaiean.**

## IRAILAK 15, igandea

### ELKARTE ARTEKO ZIKLOTURISTA

**09:00 IRTEERA**

Lekua: Jose Mari Lasa plaza

Informazioa: [www.goierrike.net](http://www.goierrike.net)

### EBA LIGAKO SASKIBALOI PARTIDA

**18:00 SASKIBALOI PARTIDA: EBA COPA**

Goierri Iparragirre 2020 // Santurtzi

Lekua: Aldiri kiroldegia

Informazioa: [www.goierrike.net](http://www.goierrike.net)



## ADINEKO PERTSONEN JARDUNALDIAK 2019

### Irailak 15, igandea

#### ADINEKO PERTSONEN EGUNA

- **11:30.-** Udal Korporazioak **Eguneko Zentrora bisita** egingo du.
- **12:15.-** Adineko pertsonak eta Udal Korporazioa Aterpen elkartuko dira eta bertaratutako edadetuenak omenduko dira. Ondoren, "Lizarriturri" txistulari taldeak lagundurik, Martin Deunaren elizaraino joango dira.
- **12:30.- Meza**, Martin Deunaren Elizan. **GOIZALDE** abesbatzaren eta Valladolideko GRUPO FOLCLÓRICO "AIRES CASTELLANOS" dantza taldearen parte-hartzearekin.
- Ondoren, bertaratutako adineko pertsoneri **ARGAZKIA** aterako zaie.
- Jarraian, "**Lurra**" **Dantza taldearen saioa** Iparragirre plazan.
- **14:15.- BAZKARIA** Ederrena pilotalekuan
  - Antzar mousse-a ogi xigortuan
  - Nafarroako zainzuriak ozpin-olio ilustratuarekin
  - Etxeko arrain zopa donostiar erara
  - Legatz-solomoak Erromako erara piperrekin
  - Krema eta natazko hostorea krema ingelesarekin
- **16:00.-** Bazkalondoan **DANTZA LEHIAKETA ETA ANIMAZIO EKINTZAK** izango dira **Dj Tirapuren** eskutik.



### Irailak 27, ostirala

#### GAZTE IZANA GAZTE BIDEAN

- **17:30.** Gazte Bidean lokalean eta Iparragirre plazan, **BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTRUKEA:** gazte izanak eta gazteak izateko bidean daudenak elkar ezagutzuz.
  - Afari-merienda

## IRAILAK 19, osteguna

**19:00.- GOIERRI K.E. NESKEN BOLEIBOL TALDE BERRIAREN AURKEZPENA,**  
Aldiri kiroldegian. Sarrera librea.

Goierrri Kirol Elkarteak nesken boleibol talde berria aurkeztuko du ekitaldi berezi batean. Bertan taldekideen aurkezpena eta partidua ikusteko aukera egongo da. Jokalarien artean Urretxu, Beasain, Idiazabal eta Antzuolako neskak biltzen dira. Egindako ahalegin eta entrenamendu guztien ondoren ongi etorria emateko unea da. Animatu!



## IRAILAK 20, ostirala

**Irailaren 20tik 23ra ARDURAZ DIBERTITU EKIMENA TXOSNETAN.** Alkoholaren kontsumo arduratsua egiteko mezuen zabalkuntza.

**18:00.-** Mundo Mejor, San Martin eta Pagoeta auzoetan **ERRALDOI KONZENTRAZIOA.** Gainera **TXOKOLATE JANA** izango da hurbiltzen diren haur guztientzat!

**19:00.-** Hasiera emango zaio **BURUHANDI ETA ERRALDOIEN IBILALDIARI.** Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik **BURUHANDIAK** aterako dira: Urretxuko **"BANDOLEROAK"** (Patakon, Giñi, Eder, Frantses Txikia, Galtxagorri eta Bizarbeltz) eta Azkoitiko **"BURUHANDIAK"**. Beraiekin batera **URRETXUKO ERRALDOIAK** ibiliko dira. Musika Ikastetxeko trikitilarien eta "Iratzarri" dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre plazaruntz abiatuko dira.

Gainera aurten **"DUNBOTS" NESKEN BATUKADA TALDEA** ere izango dugu, **BELDUR BARIK** ekimenaren barruan. Emakumeen etxetik irtenda bat egingo du ibilaldiarekin.

**19:00 – 22:00.- "UROLATARRAK" TXARANGA** ibiliko da kaleak girotzen.

**19:30.- "IPARRAGIRRE BALERDI" MUSIKA BANDA, eta "LIZARRITURRI" TXISTULARI TALDEA**ren kalejira giro ezin hobean.

**20:15.- SASKIBALOI PARTIDAK EBA KOPA** Aldiri kiroldegian.  
Goierrri Iparragirre 2020 // EASO

**20:30.-** Iparragirre plazan, **PREGOIA** irakurri ondoren, **TXUPINAZOA.** Aurtengo **PREGOILARIA "GOIERRI SASKIBALOI TALDEA"** izango da. Aldi berean, banderak jarriko dira udaletxeko balkoi nagusian. "Dunbots" Nesken batukada taldea, "Lizarriturri" txistulariak, "Iratzarri" dultzaineroak, "Secundino Esnaola" Musika Ikastetxeko trikitilariak, buruhandiak, erraldoiak, "Iparragirre Balerdi" Musika Banda eta "Urolatarrak" txaranga arduratuko dira elkartutako jende guztia dantzan jartzen, eta "URRETXU MARTXA"ren doinua entzun ahal izango da.

**Urolatarrak TXARANGA** kaleak girotzen ibiliko da.



**22:30.- Gernikako Arbola plazan, VII. HIP-HOP JAIALDIA.**

Aurten, Irungo **KULTO KULTIBO rap / reggae** talde famatua izango dugu gonbidatu berezi modura.

Gainera, talde hauek ere arituko dira:

- SBRV (Pamplona),
- ISACKESE - SEOK - DANTE (Barcelona)
- AGRESION VERBAL (Urretxu – Zumarraga)



## IRAILAK 21, larunbata

**09:30.- Abenida berrian, Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETA eta LEHIAKETARI** emango zaio hasiera. **"SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK** izango dira bertan giroa alaitzen.

Aldi berean, Abenidan bertan, **AZOKA BEREZIA**, janariak, pintxoak, artisautza, etab.

**11:00-12:45.- ASMATU TXEKORRAREN PISUA.** Ferian bertan txekorraren pisua emateko aukera egongo da. Hautatutako abelgorriaren pisua asmatzen duenarentzat (edota pisura gehien hurbiltzen denarentzat, baina pasatu gabe) produktu ekologikoz osatutako lote bat izango da.

**12:00.- BERTSO SAIOA ZUMARRAGA-URRETXUKO BERTSO ESKOLAKO BERTSOLARIEKIN**

Aldi berean,

**12:00.- ZEZENTXOAK** San Martin auzoko plazatxoan, parkearen ondoan.

Kaleak girotzen **"SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK** ere ibiliko dira.

**12:30.- ABELGORRI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA** hasiko da.

Saria: diploma eta inseinazio bat

**12:50.- TXEKORRA PISATU. Jarraian- TXEKORRAREN PISUAREN IRABAZLEAREN SARIA EMATEA.** Irabazlea bertan egotea derrigorrezkoa da, bestela hurrengo gertuenari emango zaio saria. Saria pisua asmatu edota gehien gerturatzen denari emango zaio, **baina pasatu gabe**. Batek baino gehiagok asmatzen badute zozketa egingo da asmatzaileen artean.

**13:15.- "ERRIMAK OINETAN" DANTZA SAIOA, HAATIK DANTZA KONPAINIAREN eskutik,** Gernikako Arbola plazan. Eguraldi txarrarekin, Aldiri kiroldegian.

**16:00.- GOIERRI K.E. XAKE TXAPELKETA** Areizaga-Kalebarren plazan. Izen-ematea doakoa da. Aurrez 665737302 telefonora deituta edo whatsapppeztan eta bertan ere egin daiteke eta doakoa izango da. Partidak 10 minututara suitzar erara jokatuko dira, etorri eta parte hartu! Parte hartzaile guztiei saritxo bat emango zaie.

**16:00.- Gernikako Arbola plazan, 43. GASTRONOMIA LEHIAKETA hasiko da. Jangaia: TXERRI MASAILAK SALTSAN.**

Sukaldariak Gernikako Arbola plazako luzapenean jarriko den karpan arituko dira. Aurten gainera parte hartzaile guztiek opari berezia jasoko dute.



**17:00 – 19:30.- San Martin-Barrenkaleko probalekuan, URRETXU – ZUMARRAGAKO XVII. IDI PROBAK TXAPELKETA**

Partaideak: Asier Izagirre (Ipeñarrieta)  
Asier Zubillaga (Apain jatetxea)  
Iñaki Irigoras  
Patxi Aranbarri  
Inazio Soraluze (Korta)

**18:00 .-** Gernikako Arbola plazan, **gaztetxoentzako TXIKI-CHEF SUKALDARI TAILERRAK. Gure etorkizuneko sukaldariak trebatzeko tailerrak: TALOAK + GAILETAK + FRUTA BROTXETAK.** Hiru tailer eta sei begirale gure gaztetxoek salseatuz primeran pasa dezaten!

**18:00 – 20:00 BERDINTASUNAREN ALDEKO TXAPA TAILERRA** txosnetan, **BELDUR BARIK** ekimenaren barruan.

**19:00.- ALARDEAN PARTE HARTUKO DUTEN TXISTULARIEN KALEJIRA**

**19:30.-** Iparragirre plazan, **TXISTULARIEN ALARDEA.** Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian izango da.

**Partaideak**

- GOIARGI abesbatza
- SEKUNDINO ESNAOLA musika eskolako haurren abesbatza
- AZPEITIAKO metal boskotea
- LURRA eta IRRINTZI dantzari taldeak
- ZUHAITZAREN SOINUA kolektiboko txalapartariak
- Mikel ITURRIOZ bertsolaria
- Uxue KEREJETA eta Maddi MARTIN abeslariak
- Jose Angel URBIETA eta Amaia ARANAGA abeslariak
- Asier ALKORTA kitarra-jolea
- Jon GOENAGA piano-jolea
- Patxi URRESTARAZU baxu-jolea
- Andoni ORUESAGASTI trikitilaria
- IRATZARRI dultzaineroak
- Herri askotatik etorritako TXISTULARIAK



**Aurkezleak**

- Amaia ARANBURU eta Jesus Mari GARRALDA

**Zuzendaria**

- Ibon GARMENDIA

**EGITARUA**

EUSKAL HERRIKO KANTAK	J. Franco / Mold.: J. Martinez
LORE BAT TONTOR GAINEAN	Jon Etxeandia
GOIZUETA	Herrikoia / Mold. J.I. Ansorena
HABANERA – ARIN ARINA	Ezezaguna / Mold. J.I Ansorena
AMALUR	Xabier Zabala
GURE NAHIA	Iker Lauroba / F. Goñi
AGURE ZAHARRA	Gorka Knörr
AZKEN AGURRAREN NEGARRA	Gorka Knörr
BOK SPOK	Kepa Junkera
KAIXARRANKA	Kepa Junkera
PALOMARENA	A.Calamaro/A.Sarriegi/ Mold. A. Furundarena
AURRERA ALTSASU	P.Reparaz / J.Maia / Mold: K. Sanchez Ekiza
KORRIKA MIX.	Egile ezberdinak / Mold.: Xabier Zabala
GERNIKAKO ARBOLA	J. M. Iparragirre



**19:30.-** Areizaga – Kalebarren plazan, **GAZTE SORKUNTZA GUNEAN, KONTZERTUAK**

- **19:30 – 20:30.- ALARMA MOREA**
- **20:30 – 21:30.- ALTER EGO**

**21:00.- GASTRONOMIA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA.** Gernikako Arbola plazako karpan, epaimahaiak **43. Gastronomia Lehiaketarako gertatutako platerak dastatu eta gero, bi sukaldari irabazleen izenak** ezagutuko ditugu. Ondoren, sukaldari eta laguntzaileek gustu handiz afalduko dute prestatutakoa Ederrena pilotalekuan.

**23:00.-** Gernikako Arbola Plazan, **SU TA GAR** taldearen **KONTZERTUA.**



## **IRAILAK 22, igandea**

### **EUSKAL JAIA**

**Animatu parte hartzera eta jantzi baserritar!**

**10:00.- URRETXUKO “LIZARRITURRI” TXISTULARI TALDEA, “ZUMARRAGAKO TRIKITIXA” eta “IRATZARRI” DULTZAINARIEN DIANAREKIN** emango diogu hasiera egunari.

**GOIZEKO EUSKAL JAIALDIA** Gernikako Arbola plazan

**11:00.-** Gernikako Arbola plazan, hasiera emango zaio **ARTISAUEN ERAKUSKETA eta AZOKA**ri. Eskualdeko artisauen lanak zuzen zuzenean.

**12:00 – 14:00 EUSKAL JAIALDIA.** Oholtza gainean eta plazan bertan, hainbat talde arituko dira: Zumarragako trikitixa, Aierbetarren trikitixa, Zumarraga eta Urretxuko bertso eskola, Secundino Esnaola Musika Eskolako metalak eta trikitilariak, erraldoiak eta dultzainerok, Benta Zaharreko mutiko alaiak...

**12:30.- KARROZEROEN KONTZENTRAZIOA eta SALDA BEROA** Gernikako Arbola plazan. **TRIKI- HAMAIKETAKOA**, pintxo goxo-goxoekin.

**Gainera, beste gune batzuetan,**

**12:00.-** Aldiri kiroldegian **ERRALDOIAK** elkartuko dira. **Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako** konpartsak izango ditugu. Gero, 12:00etatik aurrera, kalejiran ibiliko dira kaleak alaitzen: Labeaga kalea – Iparragirre kalea – Abenida – Gernikako Arbola plaza (dantza egingo dute) – Areizaga – Nekolalde kalea.

**12:30 .- HERRI MEZA NAGUSIA** San Martin de Tours elizan.

**13:00.-** Iparragirre kalean **KANTU SAIOA: “BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIK** (Urretxu, Zumarraga eta Urrestillako kidez osatutako musika taldea).

**14:00.- EUSKAL JAIAREN** partaide guztien arteko **HERRI BAZKARIA** Ederrena pilotalekuan.



**17:30.- KARROZEN IBILALDI IKUSGARRI**aren hasiera. Irteera Mugitegi industrialdeatik izango da. Aurten, 8 koadrila aritu dira lanean. Koadrila hauek egindako karrozek eta ondoren aipatzen ditugun taldeek osatuko dute Euskal Jaiako ibilaldia.

- **Azpeitiko “Itsasi” Zanpantzar taldea**
- **Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko “Iratzarri” dultzaineroak**
- **Euskalerriko hainbat lekutatik etorritako erraldoiak.**
- **Urretxuko “Lizarriturri” Txistulari taldea**

#### **KARROZAK ETA MUSIKA ETA DANTZA TALDEAK**

<b>1. ORAIN PRESOKAK</b> karroza
Lurra DT
<b>2. 19 TA KITTO</b> karroza
Urretxuko Trikitixa
<b>3. EYAK JODIU</b> karroza
Larraiza DT (Lizarra)
<b>4.- NEE</b> karroza
Zumarragako Trikitixa
<b>5.- BURUNBA</b> karroza
Irrintzi DT
<b>6.- 00RP</b> karroza
Trikitilariak
<b>7.- HDM</b> karroza
Zumarragako txistulariak
<b>8.- LMM</b> karroza
Secundino Esnaola Musika eskola

**19:00.-** Gernikako Arbola plazan **“ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN”** saioa.

**19:15.-** Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola plazan sartzen hasiko dira.

**Denak Gernikako Arbola plazara heldu ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA** jakinaraziko da.

**23:30.- EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA**, kantu eta musikarekin batera, Gernikako Arbola Plazan.  
Euskararenugarraz,  
Guztion indarraz...  
Piztu zeuk ere zeure txingarra!



**00:00etan.- “BEDAIOKO INGURUTXOA”**, dantza herrikoia, Gernikako Arbola plazan.

**00:30,** Gernikako Arbola plazan bertan, **“GURI 5!”** gabiriar musika taldearekin **ERROMERIA, dantza eta dibertsioa.**

## IRAILAK 23, astelehena

### KOADRILEN EGUNA

**11:00 - 14:00.-** Belaustegi plazan, **HAUR ETA GAZTETXOEN GUNEAN, HAURENTZAKO PARKEA:** txu-txu tren, zirkuitoa eta puzgarriak.

(\* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.)

**12:00.-** Belaustegi plazan bertan, **MOTO ETA PATINETE LASTERKETA EROA!** Haur txikitxoei zuzenduta, plastikozko motor eta patinete lasterketa. Ezinbestekoa da kaskoa jarrita eramatea. Izen-ematea, 11:30ean, plazan bertan.

**12:00.-** San Martin auzoko plazatxoan, **ZEZENTXO eta PONIAK.** Gainera antolatuko diren **ZEZEN-JOLASETAN** parte hartzeko aukera izango duzue. Izen-ematea, plazan bertan.

Plazan **“IRAUNKORRAK”** txarangakoak arituko dira ikuskizuna girotzen.

**12:30.- KOADRILEN PISAKETA ETA IZEN-EMATEA.** Arratsaldeko koadrilen arteko jokoetan parte hartuko duten koadrilen pisaketa, Gernikako Arbola plazan. Jolasentzako izen-ematea ere bertan egin daiteke.

**12:30.- “IRAUNKORRAK” TXARANGA** kaleetan ibiliko, giro ezin hobea jartzen.

**14:30 – 17:00.- HERRI BAZKARIA** Abenidan.

(\* Eguraldi txarra egingo balu bazkaria Ederrena pilotalekuan eta Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo litzateke.)

**17:00 - 20:00.-** Belaustegi plazan, **HAUR ETA GAZTETXOEN GUNEAN, HAURENTZAKO PARKEA:** txu-txu tren, zirkuitua eta puzgarriak.

(\* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.)

**17:30.-** Gernikako Arbola Plazan **KOADRILEN ARTEKO SOKATIRA.** Eguraldi txarra egiten badu, San Martingo parke estalian. Pisaketa eta izen-ematea 12:30ean izango da Gernikako Arbola plazan.

Sariak: 1. Saria 150 € eta garaikurra / 2. Saria 100 € / 3. Saria 50 €

**“IRAUNKORRAK” TXARANGA,** kaleak girotzen ibiliko dira.

**20:00.- URRETXUKO “IPARRAGIRRE BALERDI” MUSIKA TAILERREKO BANDAREN** eskutik, **DANTZALDIA** Gernikako Arbola plazan. Bertan betiko doinuez goza ahal izango dugu giro alaietan.

**21:30.- KANTU-AFARIA** Gernikako Arbola plazan.

**Adin guztietako jendea elkartuta, ogitarteko goxoak janaz, lehengo eta oraingo euskal abestiak abesteko aukera aparta:** Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa, Mikel Markez, Ken Zazpi, Hertzainak, etab. Betiko parranda-kantu ezagunak ere abestuko ditugu, eta hori guztia herriko zenbait musikariren laguntzaz, giro jatorrean.



## OHARRAK

### JAIETAKO AUTOBUS ZERBITZU BEREZIAK

#### Gaueko autobus zerbitzuak

Ohikoa den Legazpiko autobusaz gain, irailaren 21eko gauean Antzuola-Bergara-Beasain-Ordizi lotuko dituen gaueko autobusa ere izango da, Urretxuko festetetan ondo pasa nahi duten bisitariak lasai etorri eta joan daitezzen. Hauek dira zerbitzuen ordutegi eta ibilbideak:

- **Irailak 21 (Bergara-Antzuola-Beasain-Ordizia)**

Bergara	Antzuola	Zumarr.	Beasain	Ordizi
23:30	23:40	23:55		
0:30	0:40	0:55		
1:30	1:40	1:55		
2:30	2:40	2:55	3:10	3:25
5:00	5:15	5:25	5:40	5:55

Ordizia	Beasain	Zumarr.	Antzuola	Bergara
		0:00	0:15	0:25
		1:00	1:15	1:25
		2:00	2:15	2:25
3:30	3:45	4:00	4:15	4:25
6:00	6:15	6:30	6:45	6:55

- **Irailak 20 eta 21 (Legazpi)**
- **Zumarragatik eta Legazpitik irteerak: Legazpitik 23:30etan abiatuta eta Zumarragatik 23:45ean, orduerdiro, goizeko seiak arte .**

Geralekuak:

Zumarraga: Geltokia \* Legazpi: papelera Biribilgunean



### JAIETAKO ZAPIA

Honako lekuotan izango dituzue zuen esku jaietako zapiak, 3 eurotan:

- Aizpurunea kultur etxea
- Urretxuko tabernak

### BARRAKAK

Lizeoko jolastokian jarriko dira irailaren 19tik 24ra.

### TXOSNAK

Nekolalden, irailaren 20tik 23ra, txosnagunea: kontzertuak eta ekintza ezberdinak, jai giro ederrean.